

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Hostadar gorria

UDAZKENAREN GORRIAK –hostoena, sagarrena...– antozianinek sortzen dituzte. Horiaren mugarrin inguruko koloreak sortzen dituzten pigmentuak, klorofila berdearen pean aritu dira hostoan. Udazkenean erreserbak loditzeko klorofila berreskuratu eta birziklatzen duenean, orduan azaltzen zaizkio zuhaitzari hosto horiak. Gorriak ez, ordea. Antozianinak sortu egin behar ditu zuhaitzak. Klorofilarik gabe, hostoari are eta etekin handiagoa kendu asmoz sortu, hain juxtu ere. Klorofilarik gabe hostoa ahulduta dago eta aise galduko luke. Pigmentu gorriek, baina, lan bikaina egiten dute: hostoa eguzki izpietatik babestu eta izotzari eta oxidazioari (zahartzeari) aurkaritza. Haizeñoenak ere lurreratu-ko lukeen hostoa kateatzen du gorriak, eta zuhaitzari hura hustu eta elikagaiak metatzeko aukera luzatu.

Zuhaitzaren bizilekuaren arabera hostoak gutxi edo asko gorrituko dira. Eguraldi edota lur kaskarreko tokietan, neguan iraun eta udaberrian indarrean berritzeko erreserben premia larriagoa denetan, hostoak gorriago, gorria gorriago. Minak gorria ere mintzen.

Udazkeneko sasoiaren bezala, noiznahi jo dezake landareak gorriara, antozianinak sortzera. Lehorte

zikoitz, erradiazio ultramore, ezin gehiagoko hotz, onddo gaizkile petral... Inguruneko edozein estuasun edo tenkak gorritzatzea abiarazi dezake. Neguaren atariko bezala, hostajearen garaiz kanpoko gorritzea alarma seinalea da. Jokabide hori begiz jota, ikertzaile bat baino gehiago antozianinei begira jarria da: gorritzeko landareak pigmentu horiek ekoizteari ekin behar dionez, antozianinen ikerketak ingurumeneko arazoak aurretik ezagutzeko aukera eman dezakeen susmoa dute. Landarearen sentsibilitatea alarma gorriak pizteko. Geuk, landareen aldean sor gor elkor, larrialdiak, alarmak eta txapelak gorriz pintatuagatik ere, gorriak ikusten ditugu.

Bestelako gorriak ere badira. AEBetan sagar gorriagoen xerkan, mineral zatiki mikroskopikoak ihintzatu dituzte sagardi batean. Sagarrondoak eta lurra bera estaltzen duen mintz bat eratzen da, ura eta gasekiko iragazkorra den mintza. Sagarrondoei ezarritakoan sagar ale gorriagoak eta lurrari emanaz gero ale handiagoak bildu zituzten. Fruituan islatutako argiaren kalitatea aldatzea omen da gakoa. Muturreko gorriaren izpiak ugaritzea, inondik ere. Eta, gorria mesederako?



Intsinisa edo pinu beltza (*Pinus radiata*) atlantiko aldeko baso ustiaketaren errege jarria dugu. Eta errege guztien eran, ahul. Monolaborantzaren lehen kaltea pairatzen ari da, dagoenerako: bere arerioak ere errege. Horietakoa du *Fusarium circinatum* onddoa. 1995ean atzeman zuten lehen aldiz Bizkaiko muintegi batean. Lau urterako basoetan zen. Eragin ditzakeen kalte ekonomikoak direla-eta dekretuz arautua da onddo horrek sortzen duen gaitza, “erretxinaren txankroa”. Ez da, hala ere, pinu beltzaren gaitz bakarra, arerioentzako pagotxa. Argazkiko pinua hiltzen ari da Usurbilen, pinu gorria (*Pinus sylvestris*), sasi-akazia (*Robinia pseudoacacia*), platanoa (*Platanus x hispanica*), haritza (*Quercus robur*), norteko haritza (*Quercus rubra*), gartzainondoa (*Castanea sativa*) eta sagastia (*Malus x domestica*) aldamenen dituela.